

# **Estatutu txostena**

---

HEMEN  
**ERABAKI,**

HEMEN  
**BURUJABE**

[euskoalkartasuna.eus](http://euskoalkartasuna.eus)





# aurkibidea

ATARIKO TITULUA.

**xedapen orokorrak** **3**

I. TITULUA.

**afiliazioari eta jarraitzaileei buruzkoa** **5**

**I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK** **5**

**II. KAPITULUA. AFILIAZIOA** **6**

**III. KAPITULUA. JARRAITZAILEAK** **9**

II. TITULUA.

**erakundeari eta alderdiaren egitura orokorrari buruzkoa** **11**

**I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK** **11**

**II. KAPITULUA. TOKIKO ORGANOEI BURUZKOA** **12**

**TOKIKO BATZARRA** **12**

**TOKIKO ZUZENDARITZA** **14**

**III. KAPITULUA. LURRALDE KOORDINAZIORAKO ORGANOEI BURUZKOA** **16**

**LURRALDE MAILAKO BATZARRA** **16**

**LURRALDE MAILAKO KOORDINAZIO BATZORDEA** **17**

**BILTZAR NAZIONALA** **18**

**BATZAR NAZIONALA** **21**

**NAZIO BATZORDE ERAGILEA** **24**

**KONTSEILU NAZIONALA** **25**

**IDAZKARITZA NAGUSIA** **28**

**BERDINTASUN-BATZORDEA** **29**

**KONTROL ORGANOK** **29**

**BERME BATZORDEA** **30**

**KONTUEN BATZORDE ZENTSOREA** **31**

**ORGANO PARTE-HARTZAILEAK** **31**

**URTEROKO BATZAR POLITIKOA** **31**

**2.0 LANTALDEAK** **31**

**LANTALDE INSTITUZIONALA** **32**

III. TITULUA.

**kargu publikoak** **33**

IV. TITULUA.

**diziplina araubidea** **35**

V. TITULUA.

**gazte abertzaleak** **39**

VI. TITULUA.

**gutun finantzarioa** **40**

**XEDAPEN GEHIGARRIAK** **42**

# ATARIKO TITULUA.

# xedapen orokorrak

## 1. artikulua

---

EUSKO ALKARTASUNA (aurrerantzean, EA) euskal eremu nazionaleko alderdi politiko sozialdemokrata da, lurraldearen batasuna defendatzen duena. Europar Batasunaren baitan Estatu Propioa (Euskal Errepublikak) eraiki eta, hala, Euskal Herria independentea izatea du helburu, baita gizarte justuago eta solidarioago bat lortzea ere.

Alderdi abertzalea, demokratikoa, errepublikarra, ezker eraldatzailekoa, sozialdemokrata, akonfesionala eta laikoa da EA, eta haren teoria eta praktika honakoetan oinarritzen dira: giza eskubideen defentsarekin lotutako Europako tradizio aurrerakoa, garapen jasangarria, justizia soziala, eskubide sozialen eta ingurumeneko eskubideen defentsa, feminismoa eta bakea.

Honakoa da EAren egoitza: Portuetxe Bidea 23, Donostia.

Eusko Alkartasuna dira siglak. Logotipoa haritz-hosto baten irudi gorri eta berdeak osatzen du; haritz-hostoaren azpian eta eskuinean EA letrak ageri dira, gorriz. Estatutu hauen azalean ikus daiteke logotipoa nolakoa den.

Honako hau da EAren webgunea: **[www.euskoalkartasuna.eus](http://www.euskoalkartasuna.eus)**. Eta honako hau posta elektronikoko helbidea: **[info@euskoalkartasuna.eus](mailto:info@euskoalkartasuna.eus)**.

## 2. artikulua

---

EAren hizkuntza ofiziala euskara da. Uneoro bultzatuko eta bermatuko da euskararen erabilera, beste hizkuntza batzuen erabilera alde batera utzi gabe, egoera soziolinguistiko erreala aintzat hartuta.

Alderdiaren organo ezberdinetan euskararen erabilera lehenetsiko da, eta euskaraz jakitea kontuan hartuko da kargu publikoak edo barneko karguak eskuratzeko orduan, hainbat alderdi aintzat hartuta, hala nola adina eta eremu bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa.

### 3. artikulua

---

Euskal Herriko lurralde osoan dago antolatuta EA: ARABA, NAFARROA BEHEREA, BIZKAIA, GIPUZKOA, LAPURDI, NAFARROA GARAIA ETA ZUBEROA.

Lurralde nazionaletik kanpo, Diasporako euskal komunitateetan sustatuko du haren ekintza politikoa EAk. Erakunde horiek Tokiko Taldeen maila organiko eta juridiko bera izango dute, arauz ezartzen den lotura-sistemaren arabera.

### 4. artikulua

---

EA osatzen duten pertsonen barneko eta kanpoko jarduera modu demokratikoan gauzatu-ko da, printzipio etiko hauen arabera: leialtasuna, elkartasuna, berdintasuna, zintzotasuna eta errespetua.

### 5. artikulua

---

EAREN barneko eta kanpoko kudeaketa printzipio hauetan oinarrituko da: iraunkortasuna, errespetua, zuzentzea, motibazioa, gertutasuna, zorrozatasuna, gardentasuna, parte-har-tzea, talde-lana, komunikazioa eta erabakiak hartzea.

### 6. artikulua

---

Nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa ditu EAk, eta honakoek zuzentzen dute haren funtzionamendua: Estatutu hauek, Araudiek, eta Alderdiko hainbat organok haien eskumeneko arloetan onartzen dituzten zirkularrek eta gidalerroek.

### 7. artikulua

---

EA markaren titularitatea EUSKO ALKARTASUNARI dagokio bere osotasunean. Legezko bai-mendu edota Antolakuntza Idazkari edota Komunikazio Idazkariaren aldez aurretiko baime-naren bitartez, afiliazioak EAREN logotipoa, siglak, alderdiaren irudia erabil ahalko du orota-riko material, dokumentu fisiko, birtual, ekitaldi, oinarri komunikatibo edo sare sozialetako kontuetan.

## I. TITULUA.

# afiliazioari eta jarraitzaileei buruzkoa

## I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 8. artikulua

---

Honakoak izan daitezke EAko afiliatuak: Alderdiko eta haren aliantza politikoetako jardueretan laguntzeko eta parte hartzeko borondatea adierazten duten 18 urtetik gorako pertsonak, baldin eta Alderdiaren oinarritzko printzipioak, Estatutuak, Erregelamenduak eta indarrean dauden gainerako dokumentuak onartzen badituzte.

EAREN jarraitzaileak izango dira, afiliatuak izan gabe, EAREN proiektu politikoarekin bat datozen eta hura ezagutzera ematen laguntzen duten 18 urtetik gorako pertsonak. Behar adina datu eman beharko dizkiote Alderdiari, jarraitzaile gisa dituzten eskubideak bermatu ahal izateko.

### 9. artikulua

---

EAko afiliatua edo jarraitzailea izatea ez da bateragarria Euskal Herriko eremuan jarduten duen beste edozein alderdi politikotara afiliatzearekin. EAko afiliazioa bateragarria izan daiteke EAK parte hartzen duen aliantza politikoetan adosten diren filiazio-formulekin, Batzar Nazionalak onartzen dituen baldintzetan.

### 10. artikulua

---

EAko afiliatuek eta jarraitzaileek honakoetan parte hartzea bultzatuko da: ehun asoziatiboan, EAREN helburu politikoekin bat datozen mugimendu sozial eta erakunde sindikaletan,

eta EAK parte hartzen duen aliantza politikoetako eztabaida-organoetan eta parte-hartzeko organoetan. Horretarako, beharrezko koordinazio-bitartekoak jarriko ditu Alderdiak.

## 11. artikulua

---

Afiliatuen eskari, jarraitzaileen alta, bajak eta lekualdaketak tramitatzeko prozedurak, baldintzak, epeak eta berriazko bermeak arauz arautuko dira.

## II. KAPITULUA. AFILIAZIOA

### 12. artikulua

---

Honako eskubideak izango dituzte EAKo afiliatuek:

- a) Alderdiko organoek maila ezberdinetan hartutako erabakien gaineko informazioa jasotzeko eskubidea eta, orokorrean, alderdiaren barne-bizitzari, kanpoko irudiari eta jarduerari instituzionalari eragiten dioten gai guztien inguruko informazioa jasotzeko eskubidea, bide organikoen bidez.
- b) Alderdiaren arlo ezberdinetan garatzen diren parte-hartzerako edo kontsultarako prozesu guztietan parte hartzeko eskubidea, baita helburu horretarako sortutako batzorde sektorialetako kide izateko eskubidea ere.
- c) Ahozko edo idatzizko adierazpen askearen bidez jarrera politiko propioen edo beste jarrera politiko batzuen gainean eztabaidatzeko edo horiek kritikatzeko eskubidea, alderdiaren barneko adierazpen-bideen barruan.
- d) Alderdiaren laguntza eta aholkularitza jasotzeko eskubidea, Nazio Batzorde Eragileak egokitzat jotzen duenean.
- e) Berme Batzordera jotzeko eskubidea, afiliatuaren helburuen eta eskubideen bidezko defentsa egiteko.
- f) Prestakuntza politiko eta tekniko jasotzeko eskubidea, Alderdiaren jardueretan eta helburuen lorpenean ahalik eta ongien parte hartzeko, eta agintzen dizkieten zereginetan arrakasta izatea bermatzeko.
- g) Erakundearen baliabide materialak eta giza baliabideak erabiltzeko eskubidea, haren betebeharrak betetzeko eta eskubideak egikaritzeko. Horretarako, dagokion instantziako organo exekutiboan aurretiazko baimena behar du afiliatuak.
- h) EAKo organoei galderak, proposamenak, alegazioak, kexak eta iradokizunak egiteko eskubidea, indarrean dauden Estatuetako arauen eta baliozko eran onartutako beste araudi batzuen arabera; eta dagokion erantzuna jasotzeko eskubidea.
- i) Alderdiko barneko karguetarako eta kargu publikoetarako pertsonak hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea, aurrez hautagaitza onartuz gero. Saiakera egingo da emakumeen

eta gizonen presentzia orekatua izan dadin, baita adin ezberdinetako afiliatuen presentzia ere. Ez da inor baztertuko arrazoi hauengatik: genero-identitatea, arraza, orientazio sexuala, adina edo erlijioa. Eskubide hau baliatzeko beharrezko baldintza da afiliazio-kuoten ordainketa eta kargu publiko gisa egin beharreko ekarpenak egunean izatea, eta ahalmen politikoak indarrean izatea (sufragio aktiboko eta pasiboko eskubideak), Antolakuntzako Araudi Nazionalaren eta Diziplinazko Araudiaren arabera.

- j)** Alderdiko barne-karguak zein kargu publikoak dituzten pertsona hautatuen eta arduradunen kontrol politiko gauzatzeko eskubidea, honakoetan oinarrituta: egiatzko informazioa, pertsonetikiko errespetua eta arauz ezarritako lekuei eta denborari eustea.
- k)** Afiliatuen datuen konfidentzialtasuna errespetatzeko eskubidea, eta datu horiek alderdiko funtzioetarako bakarrik erabiltzeko eskubidea, indarrean dagoen Datu Babeserako araudia jarraituz. Horretarako, alderdiak afiliazioarekin duen komunikazio oro Antolakuntza eta Komunikazio Idazkaritzen bidez eta/edo idazkaritza horiek baimendutako langileen bidez egingo da.
- l)** Webguneko tresnen bidez biltzar eta batzar nazionaletan onartutako dokumentu guztiak eskuratzeko eskubidea, gardentasun-parametroen arabera.
- m)** Helburu horietarako prestatutako botaziorako eta parte-hartzerako espazio telematikoen bidez parte hartzeko eta erabakiak hartzeko eskubidea.
- n)** Alderdiko organoen akordioak inpugnatzeko eskubidea, Legearen kontrakoak edo Estatu hauen eta bertan garatutako arauen kontrakoak direla uste dutenean. Nazio Batzorde Eragilearen erabakien aurkako errekursoak zuzenean aurkez daitezke Berme Batzordearen aurrean. Alderdiko gainerako organoen erabakien aurkako errekursoak Nazio Batzorde Eragilearen aurrean aurkez daitezke lehen auzialdian, eta Berme Batzordearen aurrean bigarren auzialdian. Arauen arabera garatuko da erreklamazio-prozedura.

### 13. artikulua

---

Honako betebeharrak izango dituzte afiliatuak:

- a)** Alderdiaren ideologia, arauak, programak eta hartutako erabakiak onartzea.
- b)** Estatutuak, kode etikoa, araudiak eta gainerako barne-arauak betetzea, eta alderdiko organoek haien eskumenaren baitan emandako ebazpenei, gidalerroei eta jarraibideei men egitea.
- c)** Alderdiaren hautagaitzen aldeko eta Alderdiak parte hartzen duen edo babesten dituen hautagaitzen aldeko botoa ematea.
- d)** Afiliatuak eskubidez eskura dezakeen informazio pribilegiatua modu desegokian ez erabiltzea.
- e)** Gainerako afiliatuak errespetuz tratatzea, uneoro.
- f)** EAz kanpoko beste talde politiko batzuetan afiliatuta ez egotea, Estatutu hauen 8. artikuluan jasotzen den moduan.



- g)** Parte-hartze prozesu guztietan eta kide diren batzorde sektorial guztietan EArekiko leialtasunez jokatzea.
- h)** Ahal duen neurrian euskara ikastea eta erabiltzea.
- i)** Alderdiari ekonomikoki laguntzea. Horretarako, banku-helbideratzearen bidez ordaindu behar dira arauz ezarritako kuota eta kargu publiko bat izateagatik egin beharreko ekarpenak, Gutun Finantzarioan ezarritakoaren arabera.
- j)** EAk eta bere aliantza politikoak deitutako bizitza organikoko eta politikoko ekitaldi guztietara joatea eta, bereziki, Alderdiko organoen bileretara joatea, baldin eta berariaz izendatu badituzte bilerarako.
- k)** Afiliatuen prestasunaren eta trebetasunen arabera, eta haien adostasunarekin, organo eskudunek esleitzen dizkieten zereginetan laguntzea eta lan egitea.
- l)** Alderdiarekin lotuta garatzen dituzten zereginiei buruz duten informazio guztia bidaltzea, horretarako ezarritako bideak erabilia.
- m)** Hauteskundeetarako hautagaitza bat osatzea, alderdiko organo eskudunak hala eskatuz gero, eta Hauteskunde Idazkaritzaren aurrean arrazoitutako ezinbesteko arrazoiak dituztenean salbu.
- n)** Hauteskunde-prozesuetan ikuskari edo Ahalduna izatea, Hauteskunde Idazkaritzaren aurrean arrazoitutako ezinbesteko arrazoiak dituztenean salbu.
- o)** Alderdiaren programa edo akordioak edo ebazpenak errespetatzea, eta publikoki ez adieraztea ardurarik gabeko iritzirik, edo Alderdiarekiko edo hark parte hartzen duen hautes aliantza estrategikoekiko leialak ez diren iritzirik.
- p)** Deliberamenduak edo, hala dagokionean, kide diren Gobernu Organoen akordioak isilpean mantentzea, eta barne-demokraziaren printzipioarekin lotutako portaera-jarraibideak betetzea.
- q)** Legeek ezarritakoa errespetatzea.

## 14. artikulua

---

EAKo afiliatu izateari utziko zaio arrazoi hauengatik:

- a)** Heriotza.
- b)** Afiliatuaren berariazko eskaera.
- c)** Afiliazio-kuotak eta/edo kargu publiko bat izateagatik egin beharreko ekarpenak 6 hilabetez ez ordaindu izana eta afiliatuari ordainketa egiteko eskatu zaionean; langabezia dauden afiliatuen kasuan edo ordainketak egitea galarazten dien beste ezinbesteko arrazoi bat dutela frogatzen duten afiliatuen kasuan salbu.
- d)** Nazio Batzorde Eragilearen zigor-ebazpen irmoa dagoenean, estatutu hauetan eta Eskubideen, Betebeharren eta Prozedura Diziplinarioaren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

### III. KAPITULUA. JARRAITZAILEAK

#### 15. artikulua

---

Honakoak dira jarraitzaileen eskubideak:

- a)** EAren kanpo-irudiari eta jarduerari eragiten dioten gai guztien gaineko informazioa jasotzeko eskubidea.
- b)** Alderdiak eskaintzen dituen zerbitzuen gaineko laguntza eta aholkularitza jasotzeko eskubidea.
- c)** Edozein batzarretara joateko eskubidea, aurrez baimena eskuratuta. Salbuespen gisa, hitza izan dezakete arauetan garatutako balizko kasuetan.
- d)** Prestakuntza politiko eta/edo teknikoa jasotzeko eskubidea, Alderdiaren jardueretan eta helburuen lorpenean ahalik eta ongien laguntzeko, eta agintzen dizkioten zereginetan arrakasta izatea bermatzeko.
- e)** Alderdian garatzen diren parte-hartze prozesu guztietara elkartzeko eskubidea, eta prozesu horietarako sortutako batzorde sektorialetan parte hartzeko eskubidea. Horretarako, eskaera egin behar zaio dagokion organoari, eta organoak onartu egin behar du eskaera.
- f)** Haien datuen konfidentzialtasuna errespetatzeko eskubidea, eta datu horiek alderdiko funtzioetarako bakarrik erabiltzeko eskubidea, Datuen Babeserako Legearen arabera.
- g)** Hauteskundeetarako hautagaitza bat osatzeko eskubidea, alderdiko organo eskudunak hala eskatuz gero.
- h)** Hauteskunde-prozesuetan ikuskari edo ahalduna izateko eskubidea.
- i)** Alderdiko afiliatua izateko eskubidea, aurretik horretarako ezarritako eskakizunak betez gero.

#### 16. artikulua

---

Honakoak dira jarraitzaileen betebeharrak:

- a)** Alderdiaren ideologia, arauak, programak eta hartutako erabakiak onartzea.
- b)** Alderdiaren hautagaitzen aldeko eta Alderdiak parte hartzen duen edo babesten dituen hautagaitzen aldeko botoa ematea.
- c)** Haien arauzko jardueraren testuinguruan organo eskudunek agindutako ebazpen guztiei men egitea, dagozkien betebeharrekin.
- d)** Eskubidez eskura dezaketen informazio pribilegiatua modu desegokian ez erabiltzea.
- e)** Gainerako afiliatuak errespetuz tratatzea, uneoro.
- f)** EAz kanpoko beste talde politiko batzuetan afiliatuta ez egotea, Estatutu hauen 8. artikuluan jasotzen den moduan.

- g)** Parte-hartze prozesu guztietan eta kide diren batzorde sektorial guztietan EArekiko leialtasunez jokatzea.
- h)** EAren akordioen eta ebazpenen aurkako jarduerarik ez garatzea, eta artikulua honetan ezarritako betebeharrak betetzea.

## II. TITULUA.

# erakundeari eta alderdiaren egitura orokorrari buruzkoa

### I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

#### 17. artikulua

---

Euskal eremu nazionalako alderdi politikoa da EA, tokiko erakundeen oinarriaren gainean eratua. Halaber, lurralde mailako egitura du, lurralde bakoitzean haren jarduera politikoa koordinatzera bideratua.

Alderdiaren ideologia hobeto zabaltzeko, taldeak sor daitezke Euskal Herriari dagokion lurralde eremutik kanpo.

Ondorioz, maila hauetan antolatuta dago EA: tokikoa, lurraldekoa eta nazionala.

## 18. artikulua

---

Alderdiko organoen edozein jarduera bertan behera gera daiteke eta eraginik gabe utz daiteke Batzar Nazionalaren erabakiz, baldin eta Estatutu hauen aurkakoa edo Zuzendaritza Nazionalaren edo Batzar Nazionalaren ebazpenen edota akordioaren aurkakoa bada.

Alderdiaren lurralde-eremu jakin bateko egoera organikoak edo politikoak hala gomendatzen duenean, Zuzendaritza Nazionalak beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har ditzake alderdiak nazio mailan finkatutako edo hainbat lurralde-eremurik finkatutako ildoak homogeneizatzeko. Antolakuntza Araudi Nazionalak arautuko ditu balizko egoerak eta kasu hauek jarraitu beharreko prozedurak.

Alderdiaren organoak modu presentzial edo telematikoa bildu ahalko dira. Alarma edo osasun emergentzia kasuan bilera presentzialak egin ahal izateko deialdiaren arduradunak aldeztu aurretiko baimena eskatu beharko dio Antolakuntza Idazkaritzari.

## II. KAPITULUA. TOKIKO ORGANOEI BURUZKOA

### 19. artikulua

---

Lurralde mailako oinarrizko afiliazio-organoa da Tokiko Erakundea.

Bizilekua edozein izanik ere, ordezkatzeko duten udalerriko Tokiko Erakundekoak izango dira zinegotziak, eta, kargu publiko bat duten bitartean, Tokiko Erakunde horretan egon beharko dute afiliatuta.

Afiliatu bakar batek ere ezingo du izan Tokiko Erakunde bateko baino gehiagoko kidea aldi berean.

### 20. artikulua

---

Tokiko Erakunde bat osatzeko, gutxienez, hamar afiliatu behar dira.

Udalerriren batean Tokiko Erakunderik ez badago edo Tokiko Erakundea desegin bada afiliatu nahikorik ez zegoelako, eskualde bereko beste Tokiko Erakunde batera batuko dira afiliatuak behin-behinean eta haien borondatez. Hala egin ezean, Antolaketa idazkaritzak eskualde bereko beste Tokiko Erakunde bati esleituko dizkio afiliatu horiek hilabeteko epean.

Tokiko Batzarraren eta Tokiko Zuzendaritzaren bidez egituratzen da Tokiko Erakundea.

## TOKIKO BATZARRA

### 21. artikulua

---

Tokiko Erakundearen organo gorena da Tokiko Batzarra, eta eremu horretako afiliatu guztiek osatzen dute, behar bezala deituta. Kuoten ordainketa egunean dutenek edo salbuetsita daudenek baino ez dute izango boto-eskubidea.

## 22. artikulua

---

Tokiko Batzarrak Koordinatzaile bat aukeratuko du kideen artean, Antolakuntzako Araudi Nazionalaren arabera. Hiriburuen kasuan, Batzar Nazionalak aukeratuko du Koordinatzailea.

## 23. artikulua

---

Biltzar Nazionala egin eta hilabeteko epean bilduko da Tokiko Batzarra, hori galarazten duen ezinbesteko arrazoirik ez badago. Afiliatu zaharrenak eta bi afiliatu gazteenek osatutako Adin Mahai batek zuzenduko du bilera hori, hasiera batean.

Behin Batzarreko Mahaia osatuta, Tokiko Koordinatzailea aukeratzeko Antolakuntzako Araudi Nazionalak ezartzen duen prozedura hasiko da.

## 24. artikulua

---

Ezinbesteko arrazoiak daudenean salbu, Tokiko Batzarrak, gutxienez, urtean lau ohiko bilera egingo ditu, Mahaiak deituta eta Koordinatzaileak eskatuta. Eta Alderdiko Biltzar bakoitza eta hauteskunde-eztabaida bakoitza baino hilabete lehenago ere bilduko da. Era berean, Tokiko Batzarrari dei egingo zaio udal-aurrekontua onartzeko.

Ezohiko Tokiko Batzarrak ere egingo dira, Koordinatzaileak eskatuta, Tokiko Zuzendaritzako gehiengoak eskatuta, edo Tokiko Erakunde horretako afiliatuen laurdenak, gutxienez, idatziz eskatuta. Tokiko Zuzendaritzak emango die tokiko afiliatu guztiei eskari horren berri.

Ohiko deialdiaren eta Batzarraren arteko denbora-tarteak ezin du izan zazpi egun baino laburragoa. Ezohiko deialdiaren epeak ezin du 48 orduz azpikoa izan. Landuko den gai-zerrenda jaso behar du Deialdiak.

Antolakuntzako Araudi Nazionalak kontrakorik adierazi ezean, gehiengo soilaren bidez onartuko dira akordioak.

## 25. artikulua

---

Honako hauek dira Tokiko Batzarraren funtzioak:

- a) Alderdiaren jarduera politikoa, ideologia eta programak bultzatzea eta zabaltzea, eta afiliazioa eta jarraitzaile kopurua sustatzea.
- b) Tokiko Koordinatzailea aukeratzea, Estatutu hauen arabera.
- c) Alderdia parte den koalizioen edo aliantza politikoen tokiko organoetan EAk izango dituen ordezkariak izendatzea, Tokiko Zuzendaritzak proposatuta.
- d) Udal Taldeko pertsona ez hautatuen izendapena eta kargu-uztea proposatzea.
- e) Biltzar Nazionalerako konpromisarioak aukeratzea.

f) Tokiko Zuzendaritzaren eta udaleko kargu publikoen jarduera kontrolatu eta bultzatzea.

g) EAK parte hartzen duen udal-hauteskundeetarako zerrendak egiteko prozesuan parte hartzea eta EAK proposatutako pertsonen zerrenda onartzea, hiriburuetako zerrendaburuaren kasuan salbu. Batzar Nazionalak berretsi beharko ditu zerrenda horiek. Zerrenda arauz ezarritako baldintzetan eta epeetan onartzen ez bada, automatikoki, hauteskundezerrenda bat aurkezteko aukera izango luke Nazio Batzorde Eragileak, Batzar Nazionalak berrets dezan.

h) Udal-taldeak udal-aurrekontuaren aurrean hartuko duen jarrera proposatzea.

## 26. artikulua

---

EAKo kideak diren edo EAK proposatu dituen udal mailako kargu publikoek haien kudeaketaren deskarguak egingo dituzte ohiko Tokiko Batzarretan. Haren jarduera arloarekin lotutako kudeaketaren deskargua egiteko eska diezaike Tokiko Batzarrak udalez gaindiko kargu publikoei.

# TOKIKO ZUZENDARITZA

## 27. artikulua

---

Tokiko Erakundearen zuzendaritzaz eta administrazioaz arduratzen den organoa da Tokiko Zuzendaritza.

## 28. artikulua

---

Gutxienez, Tokiko Koordinatzaile batek eta bi batzordekidek osatuko dute Tokiko Zuzendaritza. Tokiko Talde horretako Gazte Abertzaleak erakundeko ordezkari bat ere Tokiko Zuzendaritzako kidea izango da, izatez. Gazte Abertzaleak erakundeak aukeratuko du ordezkari hori. Tokiko koordinatzaileak aukeratuko ditu batzordekideak, haren zereginak garatzen lagundu eta aholkularitza eman diezaioten.

EAKo alkatea edo alderdiaren udal-ordezkaria ere Tokiko Zuzendaritzaren parte izango da; hitza izango du, baina botorik ez.

Alderdiak liberatutako langileek, Tokiko Erakunde horri atxikiek, Tokiko Zuzendaritzak eskatzen dien guztietan agertu beharko dute, ezinbesteko arrazoiren bat dutenean salbu.

Tokiko Zuzendaritza behin eratuta dagoenean, Idazkari bat hautatuko dute kideen artean.

## 29. artikulua

---

Tokiko Zuzendaritza behar adina aldiz bilduko da haren zereginak aurrera eramateko.

Antolakuntzako Araudi Nazionalak kontrakorik adierazi ezean, gehiengo soilaren bidez onartuko dira akordioak.

## 30. artikulua

---

Honakoak dira Tokiko Zuzendaritzaren oinarrizko funtzioak:

- a)** Haren lurralde-eremuan politikoki eta sozialki esku hartzea, Alderdiko organoek onartutako irizpideei jarraituz.
- b)** Haren lurralde-eremuan Alderdiaren politika hedatu, aplikatu eta defendatzea.
- c)** Alderdiaren eta Tokiko Erakundearen jarduera-eremuan errotutako gizartearen arteko komunikazio-puntu gisa balio izatea. Horretarako, eremu horretan egindako jardueren Memoria bat prestatuko du urtero.
- d)** Tokiko Erakundearen aurrekontu-proposamena egitea, Alderdiaren Gutun Finantzarioan ezarritakoarekin bat.
- e)** Tokiko Erakundeko afiliatuen eztabaida politikoa, parte-hartzea eta prestakuntza erraztea. Horretarako, Batzordeak edo Lantaldeak sor daitezke, gai sektorialak aztertzeko.
- f)** Tokiko Batzarraren eta Alderdiko gainerako organoen gidalerroak gauzatzea.
- g)** Tokiko Batzarrari legozkiokeen tokiko kargu publiko guztietarako izendapenak proposatzea.
- h)** EAko afiliatuak diren edo EAK proposatu dituen tokiko kargu publikoen jarduna jarraitu eta kontrolatzea.
- i)** Afiliatuak eta jarraitzaileak erakartzeko kanpainak sustatzea, Antolakuntza Idazkaritzarekin bat eginik.
- j)** Hauteskunde-intendentzian laguntzea eta, horretarako, kanpainen baitan egiten diren hauteskunde-ekitaldi guztiak antolatu eta haietan parte hartzea; haren lurralde-eremuan posta edo notario bidezko botoa kudeatzea; eta hauteskunde-eguna eta gerta litezkeen jazoerak jarraitu eta kontrolatzea, horretarako Ahalduak eta Ikuskariak izendatuta.
- k)** Tokiko hauteskunde-programetarako, udal-aurrekonturako eta Batzarrak aintzat hartutako batzorde sektorial guztietarako prozesu parte-hartzaileak bultzatzea.
- l)** Tokiko Batzarraren ordezkari gisa jardutea, hark erabakitako balizko kasuetan.
- m)** Alderdia parte den aliantza politikoen tokiko organoetan EA ordezkartuko duten pertsonak proposatzea Tokiko Batzarrari. Hautagairik ez balego, tokiko koordinatzaileak gauzatu du zeregin hori.



### III. KAPITULUA. LURRALDE KOORDINAZIORAKO ORGANOEI BURUZKOA

#### LURRALDE MAILAKO BATZARRA

##### 31. artikulua

---

Lurralde Historiko bakoitzean Alderdiaren eta lurralde-eremu horretako ordezkarien jarduera politikoa jarraitzen duen organoa da Lurralde mailako Batzarra.

Estatutu hauen arabera, Nafarroa Behereko, Lapurdiko eta Zuberoako afiliatuak Lurralde mailako Batzar bakar batean egituratzen dira, borondatez, haien berezitasun soziopolitiko delaren eta. Lurralde mailako Batzar horretatik sortuko da dagokion Lurralde mailako Koordinazio Batzordea.

##### 32. artikulua

---

Lurraldeko afiliatu guztiek parte har dezakete Lurralde mailako Batzarrean.

Boto eskubidea hurrengoek izango dute:

- a) Lurraldeari atxikitutako Toki erakundeetako koordinatzaileak.
- b) Dagokion lurraldeari atxikituak diren Batzar Nazionalako kideak.

##### 33. artikulua

---

Biltzar Nazionala egiten denetik bi hilabeteko epean bilduko da Lurralde mailako Batzarra, galarazten duen ezinbesteko arrazoiren ez badago. Printzipioz, afiliatu zaharrenak eta bi afiliatu gazteenek osatutako Adin Mahai batek zuzenduko du bilera hori. Ondoren, Lurralde mailako Batzarrearen Mahaia aukeratuko da.

##### 34. artikulua

---

Lurralde mailako Batzarrak, Lurralde mailako Koordinatzaileak deituta, ohiko bilerak egingo ditu, gutxienez, urtean hirutan. Gainera, hauteskunde-eztabaida bakoitza baino hilabete lehenago ere deitu beharko da bilera, galarazten duen ezinbesteko arrazoiren bat egon ezean.

Ezohiko Batzarrak ere egingo dira, Koordinatzaileak eskatuta, Lurralde mailako Koordinazio Batzordeko gehiengoak eskatuta, edo Batzarreko kideen herenak, gutxienez, idatziz eskatuta.

Deialdian gai-ordenaren berri eman beharko da, eta ezingo du 7 egun baino gutxiagokoa izan, ezohiko presazko arrazoirik egon ezean; Batzarreko kideen gehiengo osoak ados egon beharko du presazko arrazoi horrekin.

Lurralde batzarrak herrialde barnean itineranteak izango dira, betiere batzartokiek behar teknikoari erantzuten badizkiete, aforo edota prestazio tekniko zein ekonomikoei dagokionez.

Antolakuntzako Araudi Nazionalak kontrakorik adierazi ezean, gehiengo soilaren bidez onartuko dira akordioak.

Hauteskunde edo eztabaida plebisitario bat egon ondoren, hiru asteko epean bilduko behar du Lurralde mailako Batzarrek, galarazten duen ezinbesteko arrazoiren bat egon ezean.

## 35. artikulua

---

Honakoak dira Lurraldeko mailako Batzarraren oinarrizko funtzioak:

- a) Lurralde-eremuko hauteskunde-zerrendak prestatzeko prozesuan parte hartzea. Batzar Nazionalak berretsi behar ditu zerrenda horiek. Zerrenda arauz ezarritako baldintzetan eta epeetan onartzen ez bada, automatikoki, hauteskunde-zerrenda bat aurkezteko aukera izango luke Nazio Batzorde Eragileak, Batzar Nazionalak berrets dezan.
- b) Nazio-eremuan onartutako ebazpenak eta akordioak lurraldearen berezitasunetara egokitzeko proposatzea Batzar Nazionalari.
- c) Haren eskumeneko hauteskunde-eremuetarako programak proposatzea Batzar Nazionalari, Alderdiko egitura nazionalek kasu bakoitzean ezarritako irizpide orokorrak jarraituz.
- d) Lurralde mailako Koordinazio Batzordearen kudeaketa onartu edo zentsuratzea.
- e) Goiko organoetatik jasotako arauak, akordioak eta gidalerroak betetzea.
- f) Alderdiari mesede egin eta ongi funtzionatzen lagun diezaioketen gaiak proposatzea alderdiko organo nazionalari.

## LURRALDE MAILAKO KOORDINAZIO BATZORDEA

## 36. artikulua

---

Alderdiak eta haren ordezkariak lurralde-eremu bakoitzean duten jarduna politikoki koordinatzen, dinamizatzen eta jarraitzen duen organoa da Lurralde mailako Koordinazio Batzordea. Organo nazionalek emandako gidalerro sektorialen eta estrategikoen arabera jokatzen du.

## 37. artikulua

---

Honakoek osatuko dute Lurralde mailako Koordinazio Batzordea: lurralde mailako koordinatzaile bat; lurralde mailako koordinatzaileak aukeratutako 2 edo 3 batzordekide, haren zereginak garatzen lagundu eta aholkularitza eman diezaioten –koordinatzaileak berak ordezkari ditzake batzordekide horiek, egokitzen jotzen duenean–; eta Gazte Abertzaleak erakundeko berezko kide bat. Horrez gain, Idazkaritza Nazionalek Lurralde mailako Idazkariordeztzak onar ditzakete.

Halaber, honakoek hitza izango dute, baina botorik ez: Foru Aldundiko, Nafarroako Foru Gobernuko, Foru Parlamentuko eta lurralde bakoitzeko Batzar Nagusietako ordezkari banak. Alderdiak instituzio horietan dituen ordezkarien artean hautatuko dituzte horiek, eta parte diren instituzioarekin lotutako informazioa eman beharko diote Batzordeari.

Erabakiak isilpean mantendu beharko dira, eta akordioak modu solidarioan onartu beharko dira.

### 38. artikulua

---

Lurralde mailako Koordinazio Batzordea berak adostutako maiztasunez bilduko da. Lurralde mailako koordinatzailea arduratuko da deialdiak egiteaz, gai-ordena finkatzeaz eta erabakitzeko arauak ezartzeaz, Antolakuntzako Araudian ezarritakoa jarraituz.

### 39. artikulua

---

Honakoak dira Lurralde mailako Koordinazio Batzordearen oinarrizko funtzioak:

- a) EUSKO ALKARTASUNA parte den aliantza politikoaren lurralde mailako hainbat organotan EAko ordezkariak izendatzea, dagokion lurralde mailan.
- b) Alderdiaren ekintza politikoaren testuinguruan, lurralde mailako koordinazioa eta egituraketa bultzatzea.
- c) Dagokion lurralde-eremuko kargu publikoen jarduera jarraitzea eta kontrolatzea.
- d) Antolaketa Idazkaritzarekin elkarlanean, alderdiaren lurralde mailako ekitaldiak antolatzea.
- e) Dagozkien Lurralde mailako Batzarretan onartu beharreko hauteskunde-zerrendak presartzeko prozesua zuzentzea, zeinak Nazio Kontseiluari komunikatuko zaizkio, Batzar Nazionalean onar daitezten.
- f) Lurralde mailako Batzarraren eta Alderdiko gainerako organoen gidalerroak gauzatzea.

## BILTZAR NAZIONALA

### 40. artikulua

---

EAko afiliatuak ordezkatzeko, parte-hartzeko eta erabakiak hartzeko organo subirano goren da Biltzar Nazionala.

### 41. artikulua

---

Biltzar Nazionala ohikoa edo ezohikoa izan daiteke.

## 42. artikulua

---

Ohiko Biltzar Nazionala lau urtetik behin egingo da.

Nolanahi ere, Biltzar Nazionalaren deialdia atzeratu egin dezake Batzar Nazionalak, Nazio Batzorde Eragileak hala proposatuta. Atzerapena sei hilabetera artekoa izan daiteke. Hauteskunde-deialdi batekin bat egiteagatik edo Batzarraren ustez garrantzitsua izan daitekeen beste edozein egoeraren ondorioz atzera daiteke.

Batzar Nazionalak, eztabaidatu eta onartu ondoren, egingo du deialdia, Nazio Batzorde Eragileak proposatuta. Deialdia, gutxienez, sei hilabete lehenago egin behar da. Gai-ordena eta landuko diren gaien inguruko azalpen-memoria jaso behar ditu deialdiak. Era berean, afiliatuen datu-basearen itxiera-data zehaztu behar da deialdian. Datu-base horretan oinarrituko da biltzarreko errolda, eta horren arabera kalkulatu da tokiko talde bakoitzeko konpromisario kopurua.

Kuoten ordainketa egunean duten edo salbuetsita dauden afiliatuek osatuko dute errolda, baldin eta haien ahalmen politikoak indarrean badituzte, sufragio aktiborako eta pasiborako eskubidearekin, Antolakuntzako Araudi Nazionalaren eta Diziplinazko Araudiaren arabera.

Biltzarraren deialdiak bat egiten badu bat-bateko beste hauteskunde-deialdi edo deialdi plebisitario batekin, Batzar Nazionalak biltzarraren epea edo data alda dezake, salbuespen gisa.

Azalpen-memoriak nahikoa izan beharko du, eta honakoak jaso beharko ditu, gutxienez: biltzarraren helburua, eztabaidatuko diren txostenak, eta horien ildo nagusiak. Biltzarreko dokumentuak Tokiko Erakundeei bidaliko zaizkie, afiliatuek eztabaida ditzaten eta, hala dagokionean, zuzenketak proposa ditzaten.

Prestaketa Batzorde batek prestatuko du Biltzar Nazionala, eta hura izango da burua, Mahaia osatu arte. Batzar Nazionalak izendatuko du Prestaketa Batzordea helburu horietarako, Nazio Batzorde Eragileak proposatuta, deialdia egitean.

## 43. artikulua

---

Honako balizko kasuetan egingo da Ezohiko Biltzar Nazionala, Batzar Nazionalak deituta, Batzar Nazionalean hala erabaki eta onartu ondoren:

- a) Ekimen propioz, Batzar Nazionaleko bi herenek hala adostuta.
- b) Alderdiko afiliatuen heren batek Kontseilu Nazionalari eskari arrazoitua eginda. Eskaria egiteko unean, afiliatu horiek egunean izan behar dituzte ordainketak, edo salbuetsita egon.
- c) Kontseilu Nazionaleko bi herenek eskatuta.
- d) Zuzendaritza Nazionaleko bi herenek eskatuta.

Batzar Nazionalean onartzen den egunetik, bi hilabeteko epean egin behar da Ezohiko Biltzar Nazionala. Txostenak prestatzeko, hedatzeko, tratatzeko eta zuzentzeko denbora gehia-

go behar bada, beste bi hilabetez luza daiteke epea, Batzar Nazionala ados badago eta onarzen badu.

#### 44. artikulua

---

Tokiko Erakundeek konpromisario gisa hautatzen dituzten afiliatu guztiek osatzen dute Biltzar Nazionala, baldin eta egunean badituzte kuoten ordainketak edo salbuetsita badaude, eta haien ahalmen politikoak indarrean badituzte, Antolakuntzako Araudi Nazionalaren eta Diziplinazko Araudiaren arabera. Tokiko Erakunde bakoitzak, gutxienez, konpromisario bat izatea bermatu behar da.

Halaber, Biltzarraren parte izango dira Batzar Nazionaleko, Zuzendaritza Nazionaleko, Kontseilu Nazionaleko, Lurralde mailako Koordinazio Batzordeetako eta Berme Batzordeko kideak, eta lurralde mailako eta lurraldeaz gaindiko kargu hautatuak.

Dena den, aurreko paragrafoan zehaztutakoen artean, Tokiko Taldeek hautatutako konpromisarioek baino ez dute izango boto-eskubidea.

Konpromisario bakoitzak boto bat izango du.

Afiliatuak ere joan daitezke Biltzarrera (hitza izango dute, botorik ez), baldin eta txostenei egindako haien zuzenketak onartu badituzte haien Tokiko Erakundearen eta Batzarrean, eta, hala ere, Biltzarrean parte hartzeko konpromisario gisa izendatzea lortu ez badute.

Biltzarreko kideak aukeratzeko, arauz ezarritako zerrenda irekien sistema jarraituko da.

#### 45. artikulua

---

Honako hauek dira Biltzar Nazionalaren konpetentziak:

- a)** Estatutuak onartzea eta aldatzea.
- b)** Alderdiaren ildo politikoa finkatzea, eta, horretarako, helburuak eta estrategiak ezarri eta eguneratzea.
- c)** Batzar Nazionala osatuko duten 80 kide aukeratzeko.
- d)** Zuzendaritza Nazionaleko erakundeko kideak hautatzea, Idazkari Orokorra barne.
- e)** Kontseilu Nazionaleko kideak aukeratzeko.
- f)** Berme Batzordeko kideak aukeratzeko.
- h)** Alderdia desagitea adostea eta, desagin ondoren, alderdiaren ondarea euskararekin edo euskal kulturarekin lotutako irabazi-asmorik gabeko zer erakunderi emango dioten adostea.

Batzar Nazionaleko kideak aukeratzeko, zerrenda irekien sistema jarraituko da.

Hala, ezingo da aukeratu beharreko kideen % 80 baino gehiagoren aldeko botoa eman.

Zuzendaritza Nazionaleko kideak eta Kontseilu Nazionaleko kideak zerrenda bateratu eta itxi batean aukeratuko dira.

Berme Batzordeko kideak beste bozketa batean aukeratuko dira, sistema bera erabilia.

Biltzar Nazionalak hautatutako organoetako karguak hutsik geratzen direnean, Batzar Nazionalak (biltzarren arteko organo gorenak) aukeratuko ditu ordezkioak, baita Batzar Nazionalak berak izendatutako Batzar Nazionaleko kideak direnean ere.

#### 46. artikulua

---

Biltzar Nazionaleko akordioak gehiago soiluz onartuko dira, Estatutuen onarpena eta alderdiaren desgitea izan ezik. Estatutuak onartzeko gehiago osoa behar da eta, alderdia desgiteko, bi herenek osatutako gehiengo.

## BATZAR NAZIONALA

#### 47. artikulua

---

Biltzarren arteko alderdiaren organo gorena da Batzar Nazionala. Biltzar Nagusiko erabakiak bete daitezten lan egiten du, eta alderdia zuzentzen du, alderdiak delegatuta.

Batzar Nazionalak uneko egoerara egokitzen du Alderdiaren ildo politikoa. Horretarako, hauteskunde programetako oinarrizko gidalerroak onartzen ditu, eta Alderdiko gobernu-organok eta kargu publikoak bultzatzen eta kontrolatzen ditu.

Halaber, Batzar Nazionalak, haren eskumenen baitan, batzorde sektorialen bidez eta eztabaida ideologikorako urteko konferentzia politikoaren bidez jardun dezake.

#### 48. artikulua

---

Honako hauek osatzen dute Batzar Nazionala:

- a) Biltzar Nazionalak izendatutako 80 kidek.
- b) Tokiko Erakundeetako koordinatzaileak.
- c) Zuzendaritza Nazionaleko, Kontseilu Nazionaleko eta Lurralde mailako Koordinazio Batzordeko kideak.
- d) Berme Batzordeko eta Kontuen Batzorde Zentsoreko kideak.
- e) Lurralde mailako eta lurraldeaz gaindiko kargu hautatuek. Gainera, alkateak eta foru-diputatuek.
- f) Gazte Abertzaleak taldeko Nazio Batzorde Eragileak.

## 49. artikulua

---

Aurreko artikuluko a) eta b) ataletan aipatzen diren kideek baino ez dute izango botoa Batzar Nazionalan, baldin eta kuoten ordainketa egunean badute edo salbuetsita badaude, eta haien ahalmen politikoak indarrean badituzte, Antolakuntzako Araudi Nazionalaren eta Diziplinazko Araudiaren arabera.

Akordioak gehiengo soilaren bidez onartuko dira, Estatutu hauek gehiengo kualifikatua ezartzen duten kasuetan salbu.

Arauz ezarriko dira Batzar Nazionalaren funtzionamendua eta bateraezintasunen erregimena.

## 50. artikulua

---

Honako hauek dira Batzar Nazionalaren ahalmenak:

- a)** Biltzar Nazionalaren akordioak betetzen direla zaintzea.
- b)** Alderdiaren politika orokorra kontrolatzea eta bultzatzea.
- c)** Biltzar Nazionala, Ohiko Biltzarra eta Ezohiko Biltzarra deitzea.
- d)** Alderdiaren aurrekontua (Nazio Batzorde Eragileak proposatua) eta urteko kontuak onartzea.
- e)** Organigrama eta Kudeaketa Plana onartzea.
- f)** Biltzar Nazionalak izendatutako Zuzendaritza Nazionala, Kontseilu Nazionala, Berme Batzordeko, Kontuen Batzorde Zentsoreko eta Batzar Nazionala kideak aukeratzea, leku bat hutsik geratzean edo norbaitek dimititzean, Estatutu hauekin bat etorriz.
- g)** Kontseilu Nazionalaren, Idazkaritza Nagusiaren, Nazio Batzorde Eragilearen eta, hala dagokionean, Alderdiko beste edozein kargu publikoren kudeaketa eskatzea, onartzea edo gaitzestea.
- h)** Estatutu hauetan araututakoaren testuinguruan, EAk proposatutako pertsonen zerrenda onartzea, honako hauteskunde-zerrenden parte izan daitezen, Kontseilu Nazionalaren proposamenez:
  - Europako Parlamenturako hauteskunde-zerrendak.
  - Espainiako Diputatuen Kongresurako eta Senaturako eta Frantziako Asanblea Nazionalerako hauteskunde-zerrendak, dagozkien Lurralde mailako Koordinazio Batzordeei entzun ondoren.
  - Eusko Legebiltzarrerako, Nafarroako Foru Parlamenturako, Batzar Nagusietarako eta Iparraldeko Mankomunitaterako zerrendak, dagozkien Lurralde mailako Koordinazio Batzordeei entzun ondoren.
  - Hiriburuetakoa udaletako zerrendetako buruak, eta, ondoren, EAren bozeramaile-karguen izendapena.

Halaber, tokiko hauteskunde-zerrendak berretsi beharko ditu Batzar Nazionalak, hainbat Tokiko Batzarrek proposatutakoak. Zerrenda horiek osatzeko prozesuarekin ados egongo ez balitz, zerrenda berriak prestatzeko eska dezake.

Lurralde mailako Koordinazio Batzordeen proposamenak aztertu ondoren egingo du Nazio Batzorde Eragileak haren proposamena.

- i)** Kontseilu Nazionalak udalez gairako karguetarako proposatutako izendapenak eta kargu-uzteak onartzea. Lurralde mailako instituzioetarako izendapen eta kargu-uzteen kasuan, dagozkion Lurralde mailako Batzordeei entzun ondoren egingo du proposamena Kontseilu Nazionalak.
- j)** Balizko hauteskunde-koalizioak eta Alderdiko edozein organok sustatutako hauteskunde aurreko edo ondorengo itunak (nazionalak edo lurralde mailakoak) onartzea, hi herenek osatutako gehiengo kualifikatuaren bidez.
- k)** Kontuen Batzorde Zentsoreko eta Berdintasun Batzordeko kideak aukeratzea.
- l)** Alderdiko edozein organok aukeratutako kargu publikoak ezeztatzea, Kontseilu Nazionalak edo Batzar Nazionalerako kideen heren batek proposatu ondoren.
- m)** Nazio Batzorde Eragileak eta Kontseilu Nazionalak mahai gainean jarritako haren esku-meneko gaiak ebaztea.
- n)** Tokiko Zuzendaritzak eta/edo Lurralde mailako Koordinazio Batzordeak desagitea, erabaki arrazoitu batengatik eta bereziki larriak diren kasuetan, salbuespen gisa eta Nazio Batzorde Eragileak proposatuta. Horien ordean, behin-behinean, Tokiko eta/edo Lurralde mailako Batzorde Kudeatzaile bat izendatu beharko da. Batzorde Kudeatzaile hori arduratuko da hiru hilabeteko epean Tokiko eta/edo Lurralde mailako Batzarra deitzeaz, Tokiko Zuzendaritza eta/edo Lurralde mailako Koordinazio Batzorde berria izendatzeko. Bitartean, aldi baterako, horien funtzio guztiak hartuko ditu bere gain, haiek alderdiaren gidalerroak betetzen ez dituztenean, hala nola Estatutu hauek, biltzarretako ebazpenak edo Batzar Nazionalaren erabakiak.
- o)** Zuzendaritza Nazionalerako kideek taldeko dimisioa aurkezten duten kasuetarako Batzorde Kudeatzaile bat izendatzea, Biltzar Nazional batean Zuzendaritza Nazionalerako kide berriak izendatu bitartean.
- p)** Biltzar Nazionalak eman diezazkiokeen ahalmenak baliatzea.
- q)** Estatutu hauek garatzeko arauak onartzea.
- r)** Estatutuen aldaketa onartzea, Kontseilu Nazionalak hala proposatuta lehen artikuluan zehaztuta dauden alderdiaren helbidea, siglak, logotipoa, webgunea eta helbide elektronikoa eguneratu ahal izateko.

Batzarreko mahaiako presidentetza arduratuko da eztabaidak zuzentzeaz, parte-hartzean eta deliberamenduen ordenaz eta parte hartzeko denborak finkatzeaz.

Batzar Nazionalerako mahaiaren zeregina izango da araudia betearaztea; horretarako, araudia interpretatuko du, eta osatu egingo du zalantzaren bat edo hutsegiteren bat balego.



## 51. artikulua

---

Batzar Nazionala osatzeko bilera Biltzar Nazionala amaitu eta hurrengo 30 eta 45 egunetan egingo da, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Bilera horretan, pertsonarik zaharrenak eta bi gazteenek osaturiko Adin-Mahai bat izango da buru, eta, lehenik, Batzar Nazionalako Mahaia aukeratuko dute, eta hura Presidentetza, Presidente-ordetza eta Idazkaritza batek osatuko dute.

Batzar Nazionalako Presidentea gehiengo absolutuarekin aukeratuko dute lehen bozketan, eta gehiengo arruntarekin, hurrengo bozketan. Presidente-ordetza eta Idazkaritza aukeratzeko nahikoa izango da gehiengo sinplea lortzea.

Behin Batzar Nazionalako mahaia aukeratuta, eta Nazio Batzorde Eragileak proposatuta, organigrama aurkeztuko dute, eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko.

Batzar Nazionalak ohiko bilerak egingo ditu gutxienez urtean hiru aldiz, eta ezohikoak Nazio Batzorde Eragileak, afiliatuen % 25ek edo hitza eta botoa duten kideen heren batek eskatuta.

Batzar nazionalako gai-zerrendan puntuak gehitu ahal izango ditu Nazio Batzorde Eragileak, afiliatuen % 25ek edo hitza eta botoa duten kideen heren batek.

Batzar Nazionala bilerara deitu beharko da edozein hauteskunde- edo plebiszitu-eztabaida jazotzen denetik hiru astera bitarteko epean.

Deialdiaren eta Batzar Nazionala egiten den egunaren artean ezingo dira hogeita hamar egun natural baino gehiago eta zazpi baino gutxiago igaro, ezinbesteko premia eta beharra dagoenean salbu. Horrelakoetan, saioaren hasieran hartutako erabakiaren bitartez onartu beharko da, bozkatzaileen gehiengo sinplearekin.

Deialdiaren gai-zerrendan zehaztu beharko da, eta landuko diren gaien Azalpen Memoria bat eta horren arrazoiak ere gehitu beharko zaizkio. Azalpen Memoria nahikoa izan beharko da, batzarraren aurretik landuko diren gaien hausnarketa egin ahal izateko, bai maila pertsonalean baita tokiko batzarren esparruan ere.

## NAZIO BATZORDE ERAGILEA

## 52. artikulua

---

Zuzendaritza Nazionala da organo nagusia, Biltzar Nazionala edo Batzar Nazionala bilduta ez daudenean, eta estatutuen eta organo horien eskuordetzaren arabera esleitutako betearrapen- eta kontrol-funtzioak betetzen ditu.

BN, 45. artikuluan aurreikusitako kargu guztiak bezala, Kongresuan hautatuko da, ponentziak onartu ondoren, Kongresuko Mahaiak hautagaitzak aurkezteko eta bozketa egiteko zehazten duen epean, eta Kontseilu Nazionalako parte izango da. eta hurrengoek osatuko dute:

- Idazkaritza Nagusia
- Antolakuntza Idazkaritza
- Finantza Idazkaritza
- Hauteskunde Idazkaritza
- Harreman Instituzionalerako Idazkaritza
- Erregimen Juridikoko Idazkaritza
- Komunikazio Idazkaritza
- Nazioarteko Harremanetarako Idazkaritza

Pertsona batek idazkaritza batean baino gehiagotan funtzioak baditu, boto bakarra emateko eskubidea izango du.

Bozeramailtza Idazkaritza Nagusiak aukeratuko du bertako kideen artean.

Nazio Zuzendaritzak bere autokudeaketarako gaitasuna dauka, bere eskumenen barnean eta bere Antolakuntza Araudiaren bitartez bere funtzionamendua ordenatuko du.

## 53. artikulua

---

Nazio Batzorde Eragileak honako funtzio hauek ditu:

- Alderdiaren, koalizioaren eta ordezkarien jarduera politiko eta instituzionalaren jarraipena eta kontrola.
- Alderdiaren jarduera publikoaren jarraipena eta kontrola.
- Alderdiaren jarduera guztiak koordinatzea, eta Alderdiaren hitzarmenak zein Biltzar Nazionalak eta Batzar Nazionalak onartutakoak betetzeko beharrezko neurriak hartzea, beste organo batzuek estatutuan esleituta dituzten eskumenak eragotzi gabe.
- Kontsulta-prozesuen ostean, alderdiaren aurrekontuak, urteko kontuak eta kudeaketa-plana proposatzea, Batzar Nagusiak onartzeko.
- Diziplinazko espedienteei hasiera ematea eta horiek ebaztea, ofizioz edo alde batek eskatuta; Eskubide, Betebehar eta Diziplinazko Prozeduraren Araudian ezarritakoaren arabera.
- Lau urtera begirako alderdiaren plan estrategikoa egitea, helburu objektiboak, horiek lortzeko beharrezko baliabideak eta betetzeko epeak zehaztuz. Plan hori Batzar Nazionalak onartu beharko du, egin eta gehienez ere sei hilabeteko epean.
- Hauteskunde osteko tokiko itunak onartzea.
- Antolakuntzako Araudi Nazionalak, Kontseilu Nazionalak edo Batzar Nazionalak agintzen dituzten guztiak.

## 54. artikulua

---

Nazio Batzorde Eragilea berak adosten duen maiztasunarekin bilduko da.

Nazio Batzorde Eragilearen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo arruntarekin hartuko dira. Berdinketa izanez gero, idazkari nagusiak kalitatezko botoa izango du.

Nazio Batzorde Eragileak Kontseilu Nazionalari jakinaraziko dizkio hartutako erabakiak hurrengo bileran, eta horrek berretsi edo gaitzetsi egingo du hartutako erabakia.

Erabakiak isilpean mantendu beharko dira, eta akordioak modu solidarioan onartu beharko dira.

## KONTSEILU NAZIONALA

## 55. artikulua

---

Kontseilu Nazionala Nazio Batzorde Eragilearen organo aholku-emailea da, eta estatutuan esleitzen zaizkion laguntza- eta kontrol-funtzioak betetzen ditu.

Zehazki, honako eskumen hauek ditu Kontseilu Nazionalak:

- a)** Hauteskunde-programak egiteko parte-hartze lanen hasiera sustatzea Batzar Nazionalan.
- b)** Estatutuen esparruan, hauteskunde-zerrendak eta kargu publikoen esleipenak proposatzea, Batzar Nazionalak onartzeko; hautagaitza aukeratzeko irizpide profesionalak eta interes politikokoak aurretik azalduta, eta, hala badagokio, azken horiek baliogabetzea, Lurraldeko Eskualdeko eta Tokiko Koordinaziorako Batzarrak eta Organoak entzun ostean.
- c)** Bere eskumenen esparruan, gainerako talde politiko eta sozialekin harremanak mantentzea.
- d)** Gertakari politikoak baloratzea, herritarren kezka eta eskakizunei erantzun bat emateko neurriak proposatuz, eta horiek gure ordezkari politikoek zenbait erakundetan duten jarduerarekin koordinatuz.

- e) Erakundeetan, instituzioetan, korporazioetan, elkarte publikoetan eta erakundeek parte-hartzen dutenetan, edozein motatako komunikabideetan, eta debate sozial eta politikorako foroetan alderdia ordezkatu duten pertsonen izendapena onartzea, baita ordezkari horien izendapenarekin toki-mailan sor daitezkeen desadostasunak konpontzea ere, arlo horretako erakundeek hala eskatzen badute. Izendapen horiek eta horitarako erabilitako irizpideak Batzar Nazionalari jakinaraziko zaizkio, kudeaketaren kontuak ematea baldin badagokio.
- f) Aurreko puntuan aipatutako ordezkarien jardueraren jarraipena egitea, eta, hala badagokio, dagozkien erabakiak aztertu eta hartzea, haien jarduna ezarritako gidalerro eta helburuetara egokitzeko.
- g) Estatutuak edo beste barne-araudi batzuek esleitutakoak, baita Batzar Nagusiak berariaz agindutakoak ere.
- h) Alderdiaren plan estrategikoa egiteko Nazio Batzorde Eragilearekin elkarlanean aritzea; alderdiaren helburu estrategikoak, horiek betetzeko beharrezko baliabideak eta betetzeko epeak finkatzeko. Plan hori Batzar Nazionalak onartu beharko du, egin eta gehienez ere sei hilabeteko epean.
- i) Beharrezko barne-eztabaidak sustatzea, sektore- eta estrategia-politikak zehazteko, bai alderdi mailan bai herrialde mailan; eta, horretarako, bilerak, mintegiak, konferentziak edo prozesu parte-hartzaileak proposatuz.
- j) Parte-hartzea, erabakiak hartzea, prestakuntza eta afiliatuen informazioa etengabe sustatu eta erraztea.
- k) Kontseilu Nazionalak Biltzar Nazionaleko ponenteak proposatuko dizkio Batzar Nazionalari bere onarpenerako

## 56. artikulua

---

Nazio Batzorde Eragileak, Lurraldeko Koordinatzaileek eta Biltzar Nazionalak aukeratutako honako arlo hauetako idazkariak osatzen dute Kontseilu Nazionala, parekidetasun-printzipioa errespetatuz:

- Eskubide eta Askatasunen idazkaria.
- Politika Ekonomiko, Fiskal eta Finantzarioko idazkaria.
- Euskara, Hezkuntza eta Kulturako idazkaria.
- Trantsizio Ekologiko, Energetiko eta Digitaleko idazkaria.

Era berean, Kontseilu Nazionaleko kide izango da Gazte Abertzaleen idazkaria.

Kontseilu Nazionaleko kide izango dira EAko afiliatu publikoen ondorengo karguak ere:

- Eusko Jaurlaritzako ordezkariak.
- Nafarroako Gobernuako ordezkariak.
- Euskal Elkargoko ordezkariak.
- Europako Parlamentuko, Diputatuen Kongresuko, Senatuko, Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko eta Frantziako Asanblea Nazionaleko ordezkariak.
- Udalbiltzako, EUDELeke eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkariak.

## 57. artikulua

---

Kontseilu Nazionalak organigrama eta Idazkaritza bakoitzaren funtzioak eta helburu programatikoak aurkeztu beharko dizkio Batzar Nazionalari. Aurkezpen hori izendapena egin eta hurrengo sei hilabeteetan egin beharko da.

Idazkaritza bakoitzaren esparruan, edo Batzar Nagusiaren berezko ekimenez, Sektore Batzorde iraunkorrak eta aldizkako Txostenak edo Lantaldeak sortu ahal izango dira.

Era berean, Idazkaritza bakoitzeko titularrak Batzar Nazionalari bere funtzioen eta helburu programatikoaren garapenaren berri eman beharko dio Batzar Nazionalari, urtean behin gutxienez. Informazio hori kasuan kasuko urtearen hurrengo urteko lehen hiruhilekoan emango da.

## 58. artikulua

---

Idazkaritza Nagusiak deitu eta gidatuko du Kontseilu Nazionala. Halaber, kideen gehiengo absolutuak eskatuta ere deitu ahal izango da.

Kontseilu Nazionala berak adosten duen maiztasunarekin edo Nazio Batzorde Eragileak eskatuta bilduko da.

Erabakiak isilpean mantendu beharko dira, eta akordioak modu solidarioan onartu beharko dira.

# IDAZKARITZA NAGUSIA

## 59. artikulua

---

Idazkaritza Nagusiak alderdiko ordezkari politiko gorena du, eta bere funtzionamendu egokiaz arduratzen da; organo nazional ezberdinak koordinatuz eta Biltzar Nazionaleko, Batzar Nazionaleko, Zuzendaritza Nazionaleko eta Kontseilu Nazionaleko itunen betearazpena aginduz.

Idazkaritza Nagusiak kalitatezko botoa du Kontseilu Nazionalan eta Zuzendaritza Nazionalan, eta bien buru da. Halaber, Biltzar eta Batzar Nazionalak zabaltzen ditu.

## 60. artikulua

---

Idazkaritza Nagusiak alderdiko legezko ordezkari du, eta eskumen guztiak ditu bere ize-  
nean kontratatzeko eta behartzeko, zuzenbidean onartzen den edozein tituluren bitartez  
eta edozein modutan.

Halaber, alderdiko administrazioaren funtzionamendu egokia bermatzeko egoki irizten di-  
tuen ahalorde orokorrak edo bereziak eman ahal izango ditu.

Aurretik eman beharko dio horren berri Zuzendaritza Nagusiari, premiazko kasuetan  
izan ezik.

Idazkaritza Nagusiak betebeharra du kudeaketaren inguruko kontuak emateko Batzar Na-  
zionalari, hura bilerara deitzen duten bakoitzean.

## 61. artikulua

---

Idazkari nagusiaren dimisio, ezgaitasun edo heriotza gertatuz gero, Batzar Nazionalak idaz-  
kari nagusi berri bat hautatuko du, agintaldia amaitu arte.

Batzar Nazionalak idazkari nagusi berri bat hautatu bitartean, Nazio Batzorde Eragileak jar-  
duneko idazkaria aukeratuko du.

## 62. artikulua

---

Nazio Batzorde Eragilearen eta Kontseilu Nazionalaren itunen betearazpenaz arduratzen  
da Idazkaritza Nagusia. Halaber, Zuzendaritza Nazionaleko eta Kontseilu Nazionaleko zen-  
bait arlo koordinatzen ditu eta nazio mailan onartutako itunen zeregin fede-emaileak be-  
tetzen ditu.

## BERDINTASUN-BATZORDEA

## 63. artikulua

---

Berdintasun Batzordea izaera iraunkorra duen organo bat da, eta Batzar Nazionalak aukera-  
tutako presidente batek eta bi batzordekidek osatuko dute, gutxienez.

Haren funtzionamendua araudiaren araberakoa izango da.

## KONTROL ORGANOAK

## 64. artikulua

---

Atal honetan jasotzen diren organoak EAren gobernu onaz arduratzen dira.

Berme Batzordearen kasuan izan ezik, organo horiek osatzen dituzten pertsonak Batzar Nazionalak aukeratuko ditu, Kontseilu Nazionalak proposatutakotik, parte-hartzaileen gehien-go absolutuaren bitartez.

Proposatutako pertsonak alderdiarekin duten konpromisoagatik aukeratuko dira, eta ardurak profesionaltasunez, zuzentasunez, parekidetasunez eta zuhurtziaz bete ditzaten.

Lau urtetik gorako militantzia izan beharko dute, ezingo dira Kontseilu Nazionaleko edo Zuzendaritza Nazionaleko kide izan, ezingo dute EArekin lan-harremanik izan, ez eta diziplinazko espedienterik eduki ere, eta Antolakuntzako Araudi Nazionalaren eta Diziplinazkoaren arabera, ahalmen politikoak bete-betean izan behar dituzte.

Organo horiek alderdiko egitura betearazlearekiko independenteak dira, eta militantziaren zein EAko egitura organikoaren laguntza eskatu ahal izango dute behar duten guztietan.

## **BERME BATZORDEA**

### 65. artikulua

---

Berme Batzordea izaera iraunkorreko organo bat da, alderdiaren barne-demokrazia eta afiliatuen eskubideak bermatu eta defendatzeko ardura duena.

Barne-araudia modu egokian interpretatu eta aplikatzen dela ziurtatzen du, eta barne-hauteskundeen garapen egokia bermatzen du.

Berme Batzordea kide anitzeko organo bat da eta Biltzar Nazionalak aukeratutako bost kidek osatzen dute. Ebazpena emateko bertako hiru kide beharko dira gutxienez.

### 66. artikulua

---

Berme Batzordeak honako funtzio hauek ditu:

- a)** Alderdiaren estatutuak edo araudiak interpretatzea, ofizioz edo alde batek eskatuta.
- b)** Ager daitezkeen helegiteak bideratzea, bereziki diziplina eta afiliazio alorretan.
- c)** Kode etikoa eta alderdiaren barne-araudia betetzen direla ziurtatzea, ofizioz edo alde batek eskatuta.
- d)** EAren araudien aurka doazen jarrerak auzitara eramatea, dagozkien diziplina-espedienteen esparruan.
- e)** Alderdiaren organoek egindako itunen inpugnazioak ebaztea.

Berme Batzordeko presidentea kideen artean aukeratu beharko dute, biltzarretik hiru hilabeteko epean. Adostasunik ez badago Batzar Nazionalak hartuko du erabakia.

Berme Batzordea behar den guztietan bilduko da eta presidenteak deituko du. Ebazpena emateko bertako hiru kide beharko dira gutxienez.

Berme Batzordeko ebazpenen aurka bide judiziala bakarrik erabili ahal izango da.

Berme Batzordeak epeak ezarri ahal izango ditu bere ebazpenak betetzeko, eta horiek betetzen direla bermatzeko beharrezko neurriak hartu.

Batzar Nazionalak arau bidez erregulatuko du Berme Batzordearen funtzionamendua.

## **KONTUEN BATZORDE ZENTSOREA**

### 67. artikulua

---

Kontuen Batzorde Zentsorea barneko fiskalizazio-organoa da; kontabilitatearen kontrola eta ikuskapena, EUSKO ALKARTASUNAKO baliabide ekonomiko eta ondare-baliabideen erabilera egokia, eta gobernu-organoek egiten dituzten eduki ekonomikoko ekintzen estatutu-legezketasuna bermatzen duena.

Kontuen Batzorde Zentsorea Batzar Nazionalak aukeratutako hiru lagunek osatuko dute, lau urterako, eta EUSKO ALKARTASUNAKO gutun finantzarioan jasota daude haien eginbeharrak.

Kontuen Batzorde Zentsoreak urtero aurkeztuko die Batzar Nazionalari kontuen egoeraren barne-kontrolaren txosten bat, horiek ixtean. Txosten hori urteko kontuekin batera joango da.

## **ORGANO PARTE-HARTZAILEAK**

### **URTEROKO BATZAR POLITIKOA**

### 68. artikulua

---

Urtero konferentzia politiko bat egin ahal izango da gaurkotasun politikoa duten gaien inguruan eztabaidatu eta jarrera finkatzeko.

Batzar Nazionalak deituko du batzar politikoa, Nazio Batzorde Eragileak proposatuta.

## **2.0 LANTALDEAK**

### 69. artikulua

---

Nazio Batzorde Eragileak zenbait LANTALDE sortu ahal izango ditu, sektorialak edo gaurkotasun politikoaren arlokoak. Horretarako, LANTALDE bakoitzerako egoki ikusten dituen mi-



litanteak izendatuko ditu. Nazio Batzorde Eragileak LANTALDEETAKO militanteak izendatu edo bota ditzake.

Nazio Batzorde Eragileak Lantalde horiei beharrezko publizitatea egingo die, interesa duten militanteek haien parte-hartzea Zuzendaritza Nagusiari eskatu ahal izateko.

LANTALDE bakoitza EUSKO ALKARTASUNAK jarritako baliabideen bitartez bilduko da, aukeran, tresna telematikoen bitartez, dokumentu politikoak sortzeko helburuarekin. Dokumentu horiek Batzar Nazionalari bidaliko zaizkio.

Batzar Nazionalak dokumentu horiek onartu edo bazter ditzake.

## ***LANTALDE INSTITUZIONALA***

### 70. artikulua

---

Lantalde instituzionala EAko kargu publiko guztiek osatuko dute, eta Harreman Instituzionalerako Idazkaritza izango da burua.

Lantalde horren helburua zenbait maila instituzionaletan EA edo haren aliantza politikoak ordezkatzeko dituzten EAko kargu instituzional ezberdinak koordinatzea izango da.

Lantalde instituzionala Harreman Instituzionalerako Idazkaritzak eskatzean bilduko da, eta berak ezarriko ditu gai-zerrenda eta hitza hartzeko txandak, eta, lantaldeko kideez gain, beste edonor gonbida dezake. Kargu publikoak deialdiarekin bat egin beharko dute, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

### III. TITULUA.

# kargu publikoak

#### 71. artikulua

---

Eako kargu publikoak dira, afiliatuta edo afiliatu gabe dauden pertsonak, Eak edo EA parte den aliantza politikoek aurkeztu, osatu edo babestu dituzten hauteskunde-zerrendetarako aukeratuak izan direnak, edo Administrazio Publikoaren menpe dagoen instituzio publiko, erakunde edo enpresa batean kargu bat izateko alderdiak aukeratu dituenak.

#### 72. artikulua

---

Kargu publikoen eskubideak dira:

- a) Haien jarduna garatzen duten erakundean EA publikoki ordezkatzea.
- b) Haien zereginetan Eak babestuta egotea, alderdiaren postulatuen arabera.
- c) Eragiten dieten erabaki edo txostenen berri izatea.
- d) Haien jardunarekin lotura zuzena duten gaiak eztabaidatu eta adostuko diren batzar edo bileretan parte hartzea, ahotsarekin.
- e) Haien jarduera garatzeko antolakundearen laguntza teknikoa eta babesa jasotzea, haien kargua betetzegatik egon daitezken arazoetarako babes juridikoa barne, betiere alderdiaren postulatuekin bat baldin badator.

## 73. artikulua

---

Kargu publikoen betebeharrak dira:

- a)** Alderdiaren kode-etikoa sinatzea eta betetzea.
- b)** EArekiko eta alderdia parte den aliantza politikoekiko leialtasuna eta konpromisoa izatea, karguari dagozkion zereginak betetz, talde instituzionalaren funtzio-banaketaren eta dagokion erakundearen jarraibideen arabera.
- c)** Bere jardueraren berri ematea aldizka eta unean-unean alderdiko dagokion taldeari, hark eskatuta edo bere borondatez. Halaber, zereginak eskatzen badu, herritarrei ere horren berri ematea.
- d)** Bere jardunarekin lotura zuzena izan dezaketen eta alderdiarenak zein EAK izan ditzakeen aliantza politikoekiko diren batzar eta bileretara joatea. Era berean, alderdiak deituriko ekitaldi publikoetara joatea, justifikaturik dauden kasuetan izan ezik, bereziki tradizio historikoa duten ekitaldi nazionaletara, hala nola Aberri Egunera eta Alkartasun Egunera.
- e)** EAKo gutun finantzarioan zehazten den erregimen ekonomikoa errespetatu eta betetzea.
- f)** Kargua erregelamenduz eta antolakuntzaz dagokion alderdiaren esanetara jartzea, edo hautagai gisa aurkeztu zuen organoaren edo bere izendapenaren arduradunaren esanetara, haiek modu adostu eta arrazoituan eskatzen dutenean.
- g)** Aurreko ataletan zehaztu diren zereginak betetzea. Afiliatuak ez diren pertsonen kasuan, kargu publikoak sinatutako dokumentu baten bitartez bermatuko da, non bere zeregina leialki betetzeko konpromisoa hartuko duen.

## IV. TITULUA.

# diziplina araubidea

### 74. artikulua

---

Diziplinazko arau-haustek dira estatutuen eta araudien aurka doazen ekintzak eta hutsegiteak; afiliarioari, kargu publikoei eta alderdiaren barnekoei egotzen zaizkienak.

### 75. artikulua

---

Egindako hutsegiteak edo arau-haustek gertaeren izaera, garrantzia eta intentzioa kontuan izanda sailkatuko dira, maila hauetan: arinak, larriak eta oso larriak.

### 76. artikulua

---

Hutsegiteak epe hauetan preskribatuko dira:

- a)** Arinak 6 hilabetera.
- b)** Larriak 2 urtera.
- c)** Oso larriak 4 urtera.

Dagokion organoa hutsegitearen jakinaren gainean dagoen unean bertan hasiko da epea. Epea eten egingo da eskumena duen organoak salaketa jarri edo ofizioz jarduten badu, dagokion epearen barruan.

## 77. artikulua

---

Eskubide, Betebehar eta Diziplinazko Prozeduraren Araudiak zehaztuko ditu hutsegite arin, larri edo oso larritzat hartuko diren jokabideak. Edozein kasutan, eta Eskubide, Betebehar eta Diziplinazko Prozeduraren Araudian zehazten direnak eragotzi gabe, hutsegite oso larritzat hartuko dira, eta, hortaz, EAko afiliatu izateari uztea ekarriko dute honako hauek:

- a)** EAren edo alderdia parte izan daitekeen aliantza politikoen kode etikoa haustea.
- b)** Alderdiaren edo alderdia parte izan daitekeen aliantza politikoen estrategia urratzea, kargu publiko bat edo barne-kargu bat izatean.
- c)** Zentsura-mozio bat sinatu edo babestea, edo bati babesa ukatzea, alderdiaren edo EA parte den aliantza politikoen organo eskudunak adostutakoaren aurka.
- d)** Batzar Nazionalaren edo alderdia parte izan daitekeen aliantza politikoen organo eskudunaren baimenik gabe gobernu-itun bati atxikitzea edo/eta gauzatzea.
- e)** Alderdiaren, alderdia parte izan daitekeen aliantza politikoen edo edozein organoren irudia eta sinesgarritasuna kaltetzen duten adierazpen publikoak egitea.
- f)** Beste alderdi edo hauteskunde-koalizio baten zerrendetan sartzea aurretik baimenik izan gabe.
- g)** Edozein erakundetan, alderdiaren taldetik edo EA parte izan daitekeen edozein aliantza politikotik irtetea, erakundean jarraituz.
- h)** Beste alderdi batzuetarako komunikazio politikoa, propaganda edo boto-eskaera publikoa egitea, difusiorako edozein bide edo arloren bitartez, EAk edo bere aliantza politikoei hauteskunde-prozesu berean parte-hartzen badute, edo EAren hauteskunde-interesen eta interes politikoen aurkakoa bada.
- i)** Kargu publiko edo izendapen-kargu gisa, EArena edo bere aliantza politikoen ez den beste talde instituzional edo izaera ordezkarria duen baten parte izatera igarotzea, alderdiaren organo eskudunak aurretik onartu gabe.
- j)** Afiliatuta dagoen pertsona bat beste alderdi baten hauteskunde-zerrendan sartzea, edo beste alderdi batek pertsona hori kargu publikotzat jartzea edozein enpresa publiko, elkarte edo administrazio publikoaren menpekota den erakundetan, alderdiaren organo eskudunak onartu gabe.
- k)** Kargu publiko gisa, alderdiaren ordezkaritzan edo izenean, arau bidez ezarrita dauden ekarpenak ez egitea, horiek ordaintzeko aurretik eskatu ostean.
- l)** Alderdiaren edo alderdia parte izan daitekeen aliantza politikotako organo eskudunaren gidalerroak modu larrian desobeditzea, kargu publiko bat izanda.

Adierazitako hutsegite larri horiek egitean, Zuzendaritza Nagusiak adostuta, alderditik bota-

ko da pertsona hori behin-behinean, afiliatua izateari uztera daramaten inguruabar pertsonalak behar bezala egiaztatzen diren arte. Kasu horietan, gerora tramitatuko da dagokion diziplinazko espedientea.

## 78. artikulua

---

Hutsegite arin bat egitea idatzizko ohartarazpen batekin zigortuko da.

Hutsegite larri bat egitean, baliteke zigor gorena ezartzea, hau da, afiliatua izateari uztea urtebetez gehienez ere, egoeraren arabera eta hutsegitearen larritasuna aintzat hartuz.

Hutsegite oso larri baten kasuan, afiliatu izateari utziko dio gutxienez urtebetez, eta gehienez, lau urtez, edo alderditik kanpo geratuko da.

Etenaldiak eta kanporaketak berekin ekarriko dute zigortutako pertsonak dituen kargu publiko eta organikoak uzteko betebeharra eta alderdiaren barnean edo alderdiaren ordezkartzan edozein kargu izateko desgaitasuna, etenaldiak irauten duen bitartean.

## 79. artikulua

---

Kargu publikoren bat edo barne-karguren bat duen pertsonak salaketaren bat jasotzen badu edo delituren bat egozten badiote, alderdiaren esku utzi beharko du kargua, eta Berme-Batzordeak txosten bat egin ostean, eta parte den tokiko taldeak eta kargu publiko horrek berak esandakoa entzun ostean. Nazio Batzorde Eragileak erabakiko du ea jarduera politikoa utzi beharko duen aldi baterako, justiziak errugabea edo erruduna den erabaki arte.

## 80. artikulua

---

Falta arin, larri edo oso larriengatik egindako diziplinazko espedienteak Nazio Batzorde Eragileak hasiko ditu. Horretarako, organo horrek izapidegile bat izendatuko du afiliatuen artean eta araudiak ezartzen duenaren arabera ekingo dio izapideak egiteari.

Diziplinazko ebazpenak Berme-Batzordearen aurrean apelatzeko modukoak izango dira.

Diziplinazko espedientearen izapideak egiten dituen Zuzendaritza Nazionalako kidea bada, ezingo du gerora parte hartu Zuzendaritzak egin behar dituen itunen eta ebazpenen deliberrazio eta bozketetan, diziplinazko espedienteak ebazteko.

Prozedura zigortzailea zein hutsegite eta zigoren tipifikazioa berberak izango dira alderdi guztiarentzat, eta Batzar Nazionalak onartu eta aldatu beharko ditu.

Edozein kasutan, kaleratzea eta afiliazio-eskubidea kentzea dakarten bestelako neurri zigortzaileak prozesu kontraesankorren bitartez soilik ezarri ahal izango dira. Horietan bermatuko da kaltetutako pertsonak gertaeren inguruko informazioa jasotzeko duten eskubidea, neurriak hartu aurretik entzunak izateko eskubidea, eta zigorra ezartzen duen ituna arrazoi-tua izateko eskubidea.

## 81. artikulua

---

Diziplina arloan Zuzendaritza Nagusiak egindako ebazpenen aurka helegitea jarri ahal izango dute kaltetuek, 30 eguneko epean, Berme-Batzordearen aurrean. Batzordeak hiru hilabeteko epean ebatzi beharko du.

Berme-Batzordeko ebazpenen aurka justizia arruntean soilik jarri ahal izango dira helegiteak.

## V. TITULUA.

# gazte abertzaleak

### 82. artikulua

---

Gazte Abertzaleak EAren gazte antolakundea da. Gazte Abertzaleak eta Eusko Alkartasunaren arteko harremana biek onartutako harreman-protokoloaren arabera da. 30 urtetik beherako EAren afiliatu guztiak Gazte Abertzaleen kide izango dira, baina gazte antolaketan EAko afiliatuak ez diren kideak ere egon daitezke, EA eta Gazte Abertzaleen arteko harreman-protokoloaren arabera.

Gazte Abertzaleak bere gain hartzen ditu EAren ideia politikoak, bere baloreak partekatzen ditu eta gazteen artean sustatzeko konpromisoa du. Helburu nagusia militantzia eratzea, eta EAren gazteentzako politikak egin eta zuzentzea da.

Antolakuntza maila bakoitzeko Gazte Abertzaleen koordinatzailea edo arduraduna dagoen alderdiko organoaren kidea izango da.



## VI. TITULUA.

# gutun finantzarioa

### 83. artikulua

---

EAk bere helburuak betetzeko beharrezkoak dituen ondasunak eta eskubideak erosi, ezarri, kudeatu, alokatu eta besterendu ditzake.

### 84. artikulua

---

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan, aplikatu beharreko araudian eta estatutu hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da Alderdiaren ekonomia- eta finantza-jarduera. Era berean, EAk alderdiko baliabide ekonomikoaren erabilera arautzen duen gutun finantzario bat du.

### 85. artikulua

---

EAREN ondarearen parte izango dira bereak diren ondasun eta eskubide guztiak, eta etorkizunean edozein tituluren bitartez eskura ditzakeenak.

Pertsona bat kaleratua izatean edo afiliazioaren baja ematean, edo alderdiko taldeak desagertu edo desagitean, ez du eskubiderik izango kuoten, ekarpenen edo ondasunen banaketaren diru-itzultzerik jasotzeko, alderdiaren titulartasunekoak baitira.

### 86. artikulua

---

EAREN baliabide ekonomikoak honako hauek osatuko dituzte:

- a) Alderdiaren ondarea.
- b) Afiliatuen kuotak, arauzkoak nahiz borondatezkoak.
- c) Alderdiaren etekinak, baita alderdiaren berezko jarduerak ere.
- d) Jasotzen dituen legezko dohaintzak, oinordetzak eta dirulaguntzak.

- e) Kargu publikoei eta parlamentuko taldeei, batzarkideei edo udal-taldeei arau bidez aplikatzen dakizkiekeen esleipenak.
- f) Alderdiak erakundeetan egoteagatik jasotzen dituen dirulaguntza ofizialak.
- g) Alderdiaren, koalizioen edo alderdia parte den aliantza politikoaren finantzaketa publikoa.
- h) Bestelako legezko diru-sarrera batzuk.
- i) Itundutako mailegu edo kredituetatik eratorritako funtsak

## 87. artikulua

---

Afiliazioari, kuotei eta salbuespenei buruzko datuen kontrola eta kudeaketa BNk erabakitzen duen idazkaritzari dagokio eskusiboki, BNren Antolaketa Erregelamenduari jarraituz; eta horien tratamendua, datuak babesteko araudiaren arabera, alderdiak kontratatutako administrazio-langileei dagokie.

## 88. artikulua

---

Zuzendaritza Nazionalak alderdiaren arduradun ekonomiko-finantzieroa hautatuko du, Finantza Idazkariaren proposamenaren baitan.

Ekonomiaren eta finantzen ardura duen pertsonaren zeregina izango dira:

- a) Urteko kontuak azaldu eta egitea, eta Kontuen Auzitegian aurkeztea.
- b) EUSKO ALKARTASUNARI dagozkion diru-sarrerak kudeatzea, bai publikoak bai pribatuak.
- c) Ordainketak agintzea eta gastuak baimentzea.
- d) Finantza Idazkaritzak esleitzen dion beste edozein funtzio.

## 89. artikulua

---

EAKo kargu publiko guztiek, hautatuak edo izendatuak, dute betebeharra alderdiaren finantzaketan parte-hartzeko, araudi bidez zehazten den moduan.

## 90. artikulua

---

Alderdiaren edozein antolakuntza mailatan langileak kontratatzean, indarrean dagoen lanlegediak ezarritako arauak jarraituko zaie, eta Zuzendaritza Nagusiak onartu beharko du beti, aurretik dagozkion Idazkaritzari jakinarazita.

Batzar Nazionalari jakinaraziko zaizkio hutsik dauden postuak eta kontratazioak.

EAKo administrazioaren egitura teknikoak parte den aliantza politikoetarako lan egin dezake, hala badagokio, hauteskunde-kanpainak, edo koalizioak edo aliantza politikoak sustatutako aldizkako iraupen jakin bateko jardura edo kanpainak direla eta.

Lan-kontratadun langile guztiak hierarkikoki INaren mende daude, eta organikoki, kontratatu diren eginkizunei dagokien idazkaritza nazionalaren mende. Maila nazionalako bi goi-organoen jarraibideak bete beharko dituzte, eta haien aurrean emango dute beren jarduraren berri.

## **LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Pertsona berak ezingo du kargu organikorik bete jarraian dauden hiru legealditan baino gehiagotan.

## **BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Karguak pilatzea saihesteko, Bateriaezintasunen Araubidea zehaztuko da.

## **HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Idazkaritza Nagusia edo, hala badagokio, Zuzendaritza Nazionaleko Antolakuntza Araudiak finkatutako Idazkaritza arduratuko da alderdiaren ardurapean dauden datu pertsonalen tratamenduak eta fitxategiak babestu, administratu eta kudeatzeaz, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko araudiak xedatutakoa betez. Tratamendu eta fitxategi horiek alderdiaren funtzionamendutik eratorritako afiliatuen errolda-erregistroko liburuak izango dira eta bereziki afiliatuekin lotutako datu pertsonalak jasoko dituzte. Neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuko ditu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudian, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horiek askatasunez zirkulatzeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, eta 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoan, edo ordezkatzan dituen araudian xedatutakoa betetzeko. Era berean, "Datuen Babeserako ordezkaria" izendatzeko eskumena izango du eta zeregin hori betetzeko beharrezko bitartekoak eta baliabideak emango dizkio.

## **LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA**

Estatutu hauek sartu eta urtebeteko epean Komunikazio Idazkariak EUSKO ALKARTASUNAREN marka sare sozialetan erabiltzeko protokolo bat garatuko du, zeina Kontseilu Nazionalek onartu beharko duen.

## **LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA**

XIII. Ohiko Biltzar Nazionalak Zuzendaritza Nazionalaren esku utzi du estatutueta erabat egokitzeko egin beharreko edozein itun, ekitaldi, tramitazio edo kudeaketa, eta dagokion aginpidearen aurrean egin beharreko erregistroa; alderdi politikoen jarduera ekonomikoa eta finantzarioa kontrolatzen duen 2015eko martxoaren 30eko Lege Organikoan xedatzen denaren arabera, edo EAri aplikagarria zaion beste edozein araudiren arabera.

## **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Estatutu hauek indarrean sartuko dira Biltzar Nazionaleko osoko bilerak onartzen dituen unean.

## **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Estatutu hauek arau, plan eta araudien arabera garatuko daude eta horiek onartuak edo berrikusiak izan daitezzen Batzar Nazionallean aurkeztuko dira:

## **AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA**

Abuztua hilabete baliogabea izango da estatutu hauetan eta horiek garatzen dituzten araudietan zehaztutako epe guztietarako.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Estatutu hauetan zehazten denarekin talka egiten duten arauak, araudiak eta xedapenak indargabetuta geratzen dira.



